J. L. DAVANT
Hasparren (B.P.)          Urriaren 3-an




Jaun Kalonjea,

Gure jaun Superiorraren baimen berezienarekin bai eta, pentsatzen ahal duzun bezala, bere laguntzarekin, deliberatu dugu klasa guzietan, handienak barne, astean kurtso baten eskuaraz emaitea.

Haatik, Landestarrako eta Biarnes zonbait gure ikasleen artean baititugu, batzuek eskatu dautate astean oren bat Kaskoinarentzat. Xuxen da. Beraz Etchemendy-ri zerbitzu hori egiten ahal lukeen galdatu diot. Ihardetsi daut gogotik emanen lezakeela, ahal balu. Bainan hortarako jakitateerik aski baduela

itzaio iduri.

Beraz, zure ganat itzultzen niz. Lehen biziko aldia litake, hain segur, Kaskoinaz arta hartzea galdatzen dauzula Eskualdun batek. Badakit mintzaira hortaz ere arras argitua zirela. Bainan badakit ere beste lanik baduzula.

Ez dauzut bada hainbeste eskatuko...

Haatik, Kaskoin-Akademian edo beste nunbait ezagutzen bazinu ~~aste~~an behin obra on baten egiteko denbora eta gutizia balukeena... jakinarazten ahal zinaukea, otoi. Edo, hobeki, berari Komisionea helarazten ahal zeniokea?

Jainko Jaunak bakarrik badakike zertarat kondenatua izaten ahal den, mundu huntan, Eskuaraz arta hartzen duena!

Barkamendurekin. Onarzkitzu, Jaun Kalonjea, ene errespetuzko agurrak.

Davant